

## KANALAK

Gure produktua gure bezeroei helarazteko, kanak desberdinak erabiliko ditugu. Komunikazio kanalen barruan, sare sozialak eta gure web gunea erabiliko ditugu bezeroekin komunikatzeko. Gainera, kontu bat egingo dugu instagram-en eta beste sare sozial batzuetan, eta Gmail bat gure bezeroen galderak erantzuteko. Sare sozialak erabiliz dirua aurreztuko genuke marketing kanpainetan.

Gure banaketa kanalean paketen banaketaz arduratzen den enpresa bat erabiliko dugu hala nola: Correos, Fedex Express, MRW, DHL... Kanal hau erabiltzea erabaki dugu (zuzena) eta ez adibidez Eroskin saltzea, uste dugulako merkeago izango dela Eroskiri bestela salmenten portzentaia bat eman beharko genioke.

Azkenik, gure salmenta kanalerako gure produktuaren web orri bat egingo dugu, gure produktua "Scanreader" banatzeko. Web gune baten bitartez egitea erabaki dugu efizienteagoa ikusten dugulako, eta jendearentzat ailegatzeko errazagoa.